

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARABAKO INDUSTRIALDEA SA-REN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak joan den urriaren 31n aho batez onartu zuen Arabako Industrialdea SAren ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiari dagokiona.

2017ko urteko kontuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du.

Honela, bada, ondorioztatu du Sozietateak zuzentasunez bete duela 2017ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.